

INGURUMENA

Zabortegetan ekoiztuko dabe 16.000 herritarren argindarra

Igorreko eta Jatako zabortegetatik energia elektrikoa ekoiztea ahalbideratuko daben hitzarmena sinatu eben, atzo Bilbon, Maria Esther Solabarrieta Bizkaiko Ingurumen diputatua, eta Josu Jon Imaz Jaurlearitzako Industria sailburuak.

EEE-k (Energiaren Euskal Erakundea) eta Garbikerrek sinatutako hitzarmenak, Europako Batasuneko araudiak uri hondakinen inguruan jasotakoa betetzea lortu gura dau. «Zabortegetako metano ekoizpena gitxitu egin behar dala dino. Halan, atmosfera larregi ez berotzea, eta bertoko gasak kontrolatzeko behar diran baliabideak ipintea lortuko da», adierazo eban Solabarrietak.

Azaldu eban, «hondakin bideogradagarriak jasoten dabezan zabortege guztietan sortzen diran gasak landu egin behar dira. Ezin badira erabili erre egin behar dira».

3

ONDARROA

Aurten hasiko dira obrak Latxanbreren txokoan Gaztetxe barria egiteko

Gaztetxe barria Latxanbreren txokoan egingo da. Halantxe baieztatu dau Udal Gazte batzordeburu Iñaki Solabarrietak. Dinoanez, aurten hasiko dira eraikina egiten. Bien bitartean, Udalak Dongren behar dan beharrak egiteko konpromisoa hartu dau.

Latxanbreren txoku izenagaz ezagutzen dana, Arraun Alkartearen alboan dago. Beharrak saihasbideagaz lotuta dagozala esan dau Udal Gaztebatzorde buruak. Eraikineko beharrak laster hasiko dira. «Asmoa da urtea amaitu baino lehen egitea», adierazo dau Solabarrietak. «Obrak hurrengo asteetan aterako dira enkantera, eta gero alegazinoak egiteko epea zabalduko da».

5

AZPIEGITURAK. Erakundeek 208 mila milioi inbertitu dabez, jeltzaleen esanetan

EAJk demagogikotzat jotzen ditu PPren trafikoaren ganeko kritikak

Jeltzaleak ez datoz bat Bizkaiko errepideetako ustezko azpiegituren egitasmo amaigabea eta trafikoaren kaosa dala eta PPk, astelehenan, plazaratutako salaketakaz. Iñigo Iturrate Batzar Nagusietako Azpiegitura Batzordeko lehendakariaren esanetan, «popularren adierazpenak, faltsukeria eta iruzur mordo baina ez dira». Agintari jeltzalearen ustetan, Europa osoko uriburu handiek jasaten daben gatx endemikoa da,

PPren eritxi aldaketa salatzen dau, bidesaria dala eta

gehiegizko trafikoarena. Carlos Olazabal PPko Batzar Nagusietako bozeroaleak salateka gogorrak jaurti zituan, pasa dan astelehenan, EAJk gobernatzen dauzan erakundeek ez dabelakoan inolako soluzinorik eskaini bizkaitarrek egunero jasaten daben trafiko arazoei aurre egiteko. Jeltzaleek aurrekanpainian kokatu ditue adierazpenok, PPko ordezkariak Madrilgo gobernuaren aginduetara dagozalakoan, bakarrik.

2

HAIZEA. Arazoak, Bilbon



Haizea gogotsu dabil

Bilboko Erribera kalea da hori; ondo begiratu ezkerro, argi ikusten da eraikina obretan ez dagoana, eta garabia erabiltza lehenengo pisuraino igon dabenak eraikuntza arloko beharginak ez dirana. Haize zakarra dabil, egunokaz, Euskal Herrian, eta arazoak sortzen hasita be badago. Atzo, esaterako, trafiko barik

laga behar izan eben Erribera kalea, bai luzaroan laga be, haizeak eraikinetako zati asko bota zitualako. Uriburuko Basobidea kalean, oster, auto biren ugazabek ez eben suerte handirik euki: haizeak horma bat bota eban han, eta hormak auto bi hartu zituan azpian, eta kalte handia eragin.